



Arartekoaren 2015R-406-15 Ebazpena, 2015eko maiatzaren 14koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari gomendatzen zaio ezgaitasunaren gaineko baremoaren ataleko puntuazioa aitortzearen datoren 2015-2016 ikasturterako ikasleak onartzeko prozesuan parte hartu duen adingabe bati.

Aurrekariak

1. Erakunde honetan adingabe baten amak aurkeztu duen kexa-idazkia jaso da. Adingabeak 2015-2016 ikasturterako ikasleak onartzeko prozesuan parte hartu du.

Jakina denez, plaza nahikorik ez dagoenean eskaeren lehentasun maila ezartzeko erabiltzen den irizpideetako bat eskaera egiten duten ikasleen ezgaitasunari dagokio.

Kexan hizpide den adingabeak hezkuntza ibilbide zaila izan duen ikaslea da; izan ere, garapenaren nahasmen orokor bat diagnostikatu zioten (Aspeger-en sindromea), gaitasun instrumentalen garapenaren nahasmen batekin batera.

Adingabearen hezkuntza bilakaera gertutik jarraitu duten profesionalek familiari aholkatu diote eskolara joaten jarrai dezala, eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketak egin ditzala etxe ondoko ikastetxe txikiren batean. Horrexegatik hartu zuen parte oraindik izapidetze egoeran dagoen ikasleak onartzeko prozesuan.

Ezbairik gabe, eta aukeratutako ikastetxeetan onartua izateko aukera gehiago izateko asmoarekin (lehen aukera gisa eskatutako ikastetxean batez ere), familiak epe barruan (2015eko otsailaren 2tik 13ra) aurkeztu zuen dagokion Foru Aldundiko Desgaitasuna Ebaluatzeko Ataleko buruaren ziurtagiria, 2014ko abenduaren 22an atal horretan ezgaitasun maila baloratzeko eskabidea aurkeztu zutela adierazten duena.

Eskabidea izapidetzean, lehen aukera gisa eskatutako ikastetxean ez zuten eragozpen handiegirik jarri (soilik adierazi zieten ezgaitasuna aitortzeko ziurtagiria aurkeztu behar zutela onartuen behin-behineko zerrendak argitaratu baino lehen); horiek horrela, semeari ezgaitasuna duten ikasleentzat gordetako baremoaren bi puntuak aitortuko zizkiotela pentsatu zuten.

2014ko otsailaren 24an, familiak Ebaluazio eta Orientazio Zerbitzuaren ebazpena aurkeztu zuen ikastetxean; bertan, % 33ko ezgaitasuna aitortzen zaio adingabeari, garapenaren nahasmen orokorraren ondorioz (Aspeger-en sindromea).



Hala eta guztiz ere, behin izapideak eginda, ikastetxeak familiari jakinarazi zion ezin izango zutela kontuan hartu ezgaitasunaren gaineko baremoa, argudiatuz ziurtagiria epez kanpo aurkeztua izan zela. Egoera hori 2014ko martxoaren 5ean berretsi zen, alegia, behin-behineko zerrendak argitara eman zirenean. Bertan adingabea ez onartuen zerrendan agertzen zen, eta ez zen irizpide horri zegokion puntuazioa kontuan hartu; hala, ikastetxeak aurrez esandakoa berretsi zen, eta horren ondorioz kexa bat jarri zuten.

2. Kexa izapidetzea onartu ondoren, erakunde honetatik zera aholkatu genion familiari: behin-behineko zerrendak argitaratu ondoren irekitako erreklamazioen bidea erabil zezaten, hainbat arrazoitan oinarrituta (gogoeten atalean aipatuko ditugu arrazoioak, errepikakorrak ez izateko).

Horretaz gain, hezkuntza arduradunei aipatutakoaren berri eman genien, eta euren erantzun arrazoituaren zain geratu ginen.

Jarduera horri erantzunez, erakunde honetan hezkuntzako lurralde ordezkariaren idazki bat jaso dugu, zera ondorioztatzen duena:

“Kasu berria aztertuta, Ordezkaritzak berresten du ezen, eskabideak baremoan ezartzea ikastetxeari dagokiolarik batere kalterik gabe, onartzeko behin-behineko zerrendak argitaratzea, agiri horien aurkako erreklamazioak konpontzea eta, horren ondorioz, behin betiko zerrendak argitaratzea, beraren irizpidepean, egokia izango litzatekeela aplikatzen zorrotz jarraitzea bederatzigarren jarraibidearen 6 atalean xedatzen dena. Halaber, adostu du hitzokin batera erantzutea Arartekoari zein ikastetxeari, telefonoz azken horri, beraren autonomia aintzat hartuz eta aholkatzeko eskariaren ondorioz.”

3. Azkenik, ikastetxeak, ordezkariaren jarraibideak betez, onartuen eta ez onartuen behin betiko zerrendak argitaratu ditu, familiak egindako erreklamazioari erantzunik eman gabe. Zerrenda horietan adingabea eskatzaile

* Lurralde ordezkariak aipatutako azken jarraibide horrek ezartzen du honako hau:

6.– Eskabidearekin batera, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da, nahitaez:

(...)

Era berean, barematzean puntuak lortzeko behar diren baldintzak betetzen direla dioten egiaztagiria aurkeztu beharko dira.

Dokumentazio guztia aurkeztu beharko da epearen barruan: eskabidea zentroan aurkeztu nahi bada, lehenengo eskatutako zentroan aurkeztu beharko da; on-line eskabidea egin nahi izanez gero (izapidetze elektronikoa), aplikazioaren bitartez aurkeztu beharko da. Eskabideak onartzeko epea amaitu ondoren, ez da beste agiririk onartuko. Puntuak ematen dituen agiriren bat aurkezten ez bada, atal edo azpiatal horretan zero puntu lortuko dira; dena den, horrek ez du eskabidea ezeztatzen, ezta beste ataletako edo azpiataletako puntuak ere.



ez onartu gisa agertzen da, oraingoan ere ez baita kontuan hartu ezgaitasunaren gaineko baremoaren atalari dagokion puntuazioa.

Erabakiarekin ados ez, eta familiak dagokion gora jotzeko errekurtsua aurkeztu du hezkuntzako lurralde ordezkariaren aurrean.

Gogoetak

1. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2014ko abenduaren 15eko aginduaren bidez eskabideak aurkezteko eta epeak ezartzeko egutegi komuna ezarri zen, eta 2015-2016 ikasturterako ikasleak onartzeko jarraibideak onetsi ziren. Aginduak baremazioan puntuak lortzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkezteko beharra xedatzen du, eta adierazten du ez dela agiri berririk hartuko eskabideak aurkezteko epea igaro eta gero.

Agindu horren arabera, baremazioan bildutako irizpideak epez kanpo aurkeztutako agirien bidez egiaztatzen baldin badira, orduan, irizpide horien bidez lortutako puntuak ezin dira onartu. Baina, gure ustez, hori ez da hizpide dugun adingabearen kasua.

2. Aipatu dugun moduan, familiak epe barruan aurkeztu zuen onarpen eskabidea. Baina, momentu hartan, zegokion foru aldundiko Desgaitasuna Ebaluatze Ataleko buruak emandako ziurtagiria baino ezin izan zuen aurkeztu, 2014ko abenduaren 22an (ikasleak onartzeko prozesua hasi baino lehen) atal horretan ezgaitasun maila baloratzeko eskabidea aurkeztu zutela adierazten zuena.

Familiak geroago aurkeztu zuen adingabeari ezgaitasuna aitortzen dion ebazpena, 2014ko abenduaren 22tik aurrerako ondorioak dituena; eta, beraz, eskabideak aurkezteko epearen barruan adingabeak ezgaitasuna duten ikasleen baldintzak betetzen zituela egiaztatzen da.

Gure ustez, inguruabar horiek guztiak direla eta, bidezkoa da kontuan hartzea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikulua (HAAJAPEL), eskabideak zuzentzeko izapideari buruzkoa; eta artikulua hori alde batera utzi izanagatik, kontuan hartu beharko litzateke geroago aurkeztu zen ziurtagiria. Izan ere, ez gara ari irizpide berri baten gaineko agiri bati buruz, eskabidea aurkezteko momentuan aipatu edo egiaztatu gabea; baizik eta hasieran aurkeztu zen ezgaitasunaren irizpidearen gaineko agiriaren osagarri gisa aurkeztutako agiri bati buruz.

3. Planteamendu hori sendotzeko Auzitegi Gorenak berretsitako jurisprudenzia aipatuko dugu; izan ere, HAAJAPELren 71. artikuluan jasota dagoen



eskabideak zuzentzeko arau orokorra lehiaketa prozedurei ere aplika dakiekeela egiaztatu baitugu. Esku artean dugun kasu honetan bezala (zentzu honetan, Auzitegi Gorenaren 2003ko otsailaren 3ko epaia - RJ\2003\1565), beti babestu ditu alegatutako merezimenduak aintzat hartuak izan zitezten proposatu dutenen uziak, baldin eta agirien bidez arrazoituak eta frogatuak izan badira zegokion momentuan, nahiz eta froga horiek geroago argitu edo zuzendu behar izan diren. Kasu horietan guztietan, kontua da Auzitegiak gehiegizkotzat jo duela, eta, beraz, proportzionaltasunaren printzipioarekin bat ez datorrela kontsideratu du, merezimendu bat aintzat ez hartzea baldin eta merezimendu horren funtsezko alderdiak epe barruan frogatu izan badira, nahiz eta betekizun formal hutsen bat ez bete. Guztien artean Auzitegi Gorenaren 2012ko urtarrilaren 24ko epaia (RJ\2011\341) aipatuko dugu, Auzitegi horren ondorengoko erabakietan berariaz aipatu izan dena, besteak beste Auzitegi Gorenaren 2014ko martxoaren 5eko epaian (RJ\2014\2105).

Bestalde, garrantzitsu deritzogu Auzitegi Gorenaren hainbat erabaki gogora ekartzea, lehiaketa prozesuen gainekoak; horietan, prozesuan parte hartzeko beharrezko titulazioaren egiaztapena kontuan hartzean, zera adierazi da: *"La expedición del título por parte de la Administración, manifestación de la potestad certificante de ésta, no supone una creación de derechos para el administrado, sino el reconocimiento por la Administración de un cualificación que aquel ostenta, razón por la cual, el administrado no debe soportar las consecuencias que de la demora, en la expedición y exigencia de las tasas, por la Administración se puedan derivar."* (Auzitegi Gorenaren 1985eko uztailaren 12ko epaia - RJ 1985\4210).

4. Jurisprudentzia horretan adierazitakoa esku artean dugun kasura ekarrita, erakunde honen aburuz, hezkuntzako lurralde ordezkariak kontuan hartu beharko luke familiak jarritako gora jotzeko errekurtoa, eta adingabeari ezgaitasunaren gaineko baremoaren ataleko puntuazioa aitortu; izan ere, Desgaitasuna Ebaluatzeko Ataleko buruak emandako ziurtagiria aurkeztu ondoren osatu ahal izan baitira baldintza hori betetzen zela frogatzen zuten agiriak, eta nolana ere baldintza hori epe barruan alegatu zen, hasierako izena emateko eskabidea aurkeztu zenean.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:



GOMENDIOA

Ezgaitasunaren gaineko baremoaren ataleko puntuazioa aitor diezaion datorren 2015-2016 ikasturterako ikasleak onartzeko prozesuan parte hartu duen adingabe horri, jarritako gora jotzeko errekurtsuari erantzuna emanaz.

